

TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat gauzatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko 6. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da sozietateen gaineko zergaren autolikidazio-eredua zerga-kontsolidazioaren araubidearen bidez tributatzeko duten talde fiskalentzat (220 eredu) 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean hasitako zergaldietarako onesten duen foru aginduaren proiektua bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluko 6. apartatuaren edukiarekin hitzez hitz, proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira arlo horretan.

Aipatutako foru aginduaren proiektua Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratuko da, eta Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian, herritarrek horren berri izan dezaten.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean.

Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverdek, Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.